

Ariketa hau test mota bat da. Galdera bakoitzak 3 erantzun posible ditu, eta bakarra da zuzena.

1. Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legearen aplikazio-eremua adierazten du:

- a) Toki-administrazioan bakarrik aplikatzen da.
- b) Foru- eta estatu-administrazioari aplikatzen zaio.
- c) Botere publikoekin lankidetzan diharduten euskal administrazio publiko, unibertsitate eta enpresa pribatu guztietan aplikatzen da.

2. Printzipio hauetatik, zeinek ez du bideratu behar berdintasunaren arloko jarduera?

- a) Tratu-berdintasuna.
- b) Ordezkaritza orekatua.
- c) Rolak eta estereotipoak sustatzea

3. Zein da ekintza positibo baten helburua?

- a) Emakumeak gizartean duen posizioa urteetan zehar hobetu dela egiaztatzea.
- b) Desberdintasun-egoerak konpentsatzea eta zuzentzea.
- c) Jendea aniztasuna errespetatzera bultzatzea.

4. Legearen arabera, zuzeneko diskriminazioa dago:
- a) Ixuraz neutroa den jokabide batek sexu bereko pertsona gehienei kalte egiten dienean.
 - b) Sexu jazarpen-gaiekin topo egiten dugunean.
 - c) "A" zein "B" aukerak zuzenak dira.
5. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea urte honetan onartu zen:
- a) 2015
 - b) 2007
 - c) 2005
6. Legearen arabera, jazarpentzat hartzen dira:
- a) Edozein jokabide iraingarri, umiliagarri, larderiatsu edo bortitz.
 - b) Pertsona bati kalte fisikoa eragiten dion edozein portaera.
 - c) Pertsona batek modu autoritarioan jokatzeko duenean.

7. Legearen arabera, ordezkaritza orekatutzat jotzen da sexu biek gutxienez _____ presentzia dutenean:

a) % 40

b) % 30

c) % 50

8. Botere publikoek zein motako ekintza positiboko neurriak hartzen dituzte?

a) Finkoak.

b) Aldi baterakoak.

c) Integralak.

9. Legeak gure gaitasunak garatu eta erabakiak askatasunez hartzeko eskubidea dugula dio. Zer esan nahi du horrek?

a) Ezerk eta inork ez dizula inposatzen nola jokatu behar duzun emakume edo gizon izateagatik.

b) Beti sexu bat argi eta garbi kaltetuta dagoela adierazten du.

c) Emakumeak lan-munduan integratu behar direla adierazten du.

10. Udalen baterako lana, Aldundiak, Eusko Jaurlaritza eta besteak Erakundeak; printzipio honi dagokio:

a) Ekintza positiboa.

b) Lankidetzeta eta koordinazioa

c) Tratu-berdintasuna.

11. Hauetako zein da tratu berdintasunaren printzipioko jarduketa bat?

a) Emakume zein gizonek boterea eta baliabide ekonomiko eta sozialak eskura ditzaketela bermatzea.

b) Pertsonen sexuan oinarritutako edozein diskriminazio debekatzea.

c) Modu jakin batean pentsatzera eta jokatzera behartzen duten ohiturak ezabatzeko lan egitea.

12. Sexuen arteko berdintasuna lortzeko bidean, botere publikoek emakumeen eta gizonen aniztasuna errespetatzen dela bermatu behar dute.

a) Ekintza positiboaren printzipioa

b) Aniztasuna eta desberdintasuna errespetatzeko printzipioa.

c) Tratu-berdintasunaren printzipioa.

13. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak honela dio:

a) Emakumeen eta gizonen berdintasunerako legeak sortu behar direla.

b) Pertsona guztiak askeak eta berdinak garela duintasunari eta eskubideei dagokienez.

c) Ideia politiko guztiak errespetatu behar ditugu, nahiz eta diskriminatzaileak izan.

14. Hauek dira euskal botere publikoak:

a) Udalak eta foru-aldundiak

b) Autonomia Erkidegoa

c) "A" zein "B" aukerak zuzenak dira.

15. Gizonek eta emakumeek nahi dutena izan nahi dutela ziurtatzea (adibidez, kamioilariak edo jostunak); printzipio honi dagokio:

a) Genero-ikuspegiaren integrazioa.

b) Ordezkaritza orekatua.

c) Aukera-berdintasuna.